



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 19a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programako bi lerroak manten ditzan 2016-2017 ikasturtean. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, txikizkako saltoki txikientzako babes eta berrikuntza neurriei eta baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Arcelor SSCI enpresak Legasan libre dituen industria-lurzoruak erosteari eta kudeatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Starlight Fundazioak sustatutako ekimenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak zein kontusailen kargura egingen diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Reina Sofía Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, García Orcoyen Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2015ean publizatatera bideratutako diru-kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako British ikastetxe berrietako ikasleen hezkuntza-prozesuei jarraitutasuna emate aldera Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako ikastetxe publikoan Ingelesezt Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen ditza 2016-2017 ikasturtean.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako ikastetxe publikoan Ingelesezt Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen ditza 2016-2017 ikasturtean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mantentzen dezan, 2016-2017 ikasturtean, Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesezt Ikasteko Programako bigarren lerroa".

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako ikastetxe publikoan Ingelesezt Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen ditza 2016-2017 ikasturtean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan".

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, txikizkako saltoki txikientzako babes eta berrikuntza neurriei eta baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, txikizkako saltoki txikientzako babes eta berrikuntza neurriei eta baliabideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak PES-00110 informazio-eskaria egin du, txikizkako saltoki txikientzako babes eta berrikuntza neurriei eta baliabideei buruzkoa.

Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

“830. programa. Merkataritzaren eta kontsumoaren turismorako marketina eta garapena” izeneko programak, eta zehazki, “830003, Merkataritzaren eta artisautzaren antolaketa eta sustapena” izenekoak 1.484.000 euro dauzka. Horietatik, portzentaje handiena, % 94, gehiengoaren sektorerako —merkataritza— jarduketak jasotzen ditu.

Ondoren zehazten ditugun kontu-sailetan aurreikusitako kopuruek % 100 inguruko betetze-aurreikuspena dute; halere, zenbateko horretatik ia % 90 IV. kapituluko eta VII. kapituluko dirulaguntzen deialdietarako denez, portzentaje hori urte amaieran baizik ezin izanen da ezagutu, zeren eta dirulaguntzen deialdietako entitate onuradunen amaierako justifikazioak jakin arte ezin baita ondoriorik atera.

Kontu-sailak	2016ko hasierako aurrekontua	Aurreikusitako jarduketak:	Helburua
830003 83130 2269 431400 Informazio eta Sustapen Programa (PIC programa, 1)	45.000,00	Zehaztu gabe dagoen merkataritza sustatzeko kanpaina.	Txikizkako merkataritza hurbilekoan kontsumitzeari buruzko kontzientzia- eta horri balioa ematea.
830003 83130 2269 431402 Artisautza sustatzeko ekintzen gastuak	30.000,00	Nafarroako Artisautza Azoka (Iruñeko Gaztelu Plaza)	Nafarroako artisautzaren sektorea ikusaraztea
830003 83130 2276 431400 Merkataritza plana eta bestelako laguntza teknikoak (PIC programa, 1 eta 2)	39.000,00	Merkataritzaren IV. Plana eta kontsumorakoa aukerako formulak eta banaketa-zirkuitu laburrak sustatzeko plana.	Datozen urteetarako lan-ildoak markatzea, merkataritzaren eta artisautzaren sektorearen eskutik, merkataritza buruz akordio-programan jasotako puntuak garatuz.
	6.000,00	Merkataritza-jarduerari buruzko txosten sektorialak egitea.	Informazio argia erabili eta eskaintzea Nafarroako txikizkako merkataritzaren sektorearen egoerari eta bilakaerari buruz, erabakiak hartzen guri eta sektoreari laguntzeko.

Kontu-sailak	2016ko hasierako aurrekontua	Aurreikusitako jarduketak:	Helburua
830003 83130 2279 431400 Artisautzarako laguntza teknikoa.	7.000,00	Nafarroako artisautzaren sektorearen azterketa eta analisisa.	Behar den informazioa edukitzea egungo araudia gaurkotu ahal izateko eta artisautzaren sektorea sustatzeko.
830003 83130 4701 431402 Nafarroako artisautza sustatzeko eta prestakuntza emateko ekintzak.	45.000,00	Artisautza-enpresak sustatzeko diru-laguntzen deialdia.	Artisautza-sektorearen enpresa-lehiakortasuna areagotzea eta haren egitura eta kudeaketa hobetzea.
830003 83130 4709 431400 Kolektiboen sustapena eta kudeaketa (PIC programa, 1).	480.000,00	Merkataritza-kolektiboen sustapenerako eta kudeaketarako diru-laguntzen deialdia.	Elkartegintzaren eginkizuna sustatzea merkataritzaren dinamizazio-lanari eta -sustapenari sostengua ematearen bidez.
830003 83130 7709 431400 Merkataritza kolektiboei laguntza ematea inbertsioak egiteko (PIC programa, 1)	15.000,00		
830003 83130 4709 431404 Prestakuntza jarduketak (PIC programa, 1).	35.000,00	Merkataritza sektoreko prestakuntzarako laguntzen deialdia.	Merkatarien gaikuntza eta profesionalizatzea hobetzea.
830003 83130 7701 431400 Artisautza enpresen inbertsioak finantzatzeko transferentziak	12.000,00	Artisautza-enpresen inbertsioetarako deialdia.	Nafarroako artisautza-sektorearen azpiegiturak, haien errentagarritasun- eta kudeaketa-baldintzak, enpresa-ekipamendua eta lehiakortasuna hobetzea.
830003 83130 7701 431402 Txikizkako merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea (PIC programa, 1)	670.000,00	Txikizkako merkataritza-enpresen inbertsioetarako laguntzen deialdi berria (lehendik dauden dendak).	Nafarroako txikizkako merkataritza berritzen eta modernizatzen laguntzea, eta haren lehiakortasuna areagotzea. Horrekin dagoen merkataritza-ehundura indartu eta sektoreko enplegua piztu nahi da.
	20.000,00	Aurreikusita dago Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzaren beste deialdi bateko beharizan bereziak estaltzeko.	
830003 83130 7701 431403 Merkataritzaren arloko ekintzaile berriei laguntzea (PIC programa, 3)	75.000,00	Merkatari ekintzaileentzako deialdia	Txikizkako merkatarien enpresa txiki eta ertain berriak sortzea, azpimarra berezia eginez elementu bereizgarri eta berritzaileak dakartenen kasuan.
	5.000,00	Aurreikusita dago Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzaren beste deialdi bateko beharizan bereziak estaltzeko.	
AURREKONTUA, GUZTIRA	1.484.000,00		

Neurri hauek guztiak 2012-2015 aldirako Nafarroako Txikizkako Merkataritza Sustatzeko III. Planean jasota daude. Plan horrek zenbait programa eta neurri ezartzen ditu Nafarroako txikizkako merkataritza-sektorearen garapena bultzatu eta sendotzeko. Beharrezkotzat jo da plan horretan sartzen diren jarduketak luzatzea, baita 2016an ere, zeren eta hartan ezartzen ziren helburuak oraindik ere baliozkoak direla jotzen baita, Nafarroako txikizkako merkataritza modernizatzeko 2016-2020 urteetarako plan berriaren idazketa amaitzen

ez den bitartean. Plan hori lanketako lehenengo faseetan dago, eta nahitaez sektorearen partehartzea eskatuko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Arcelor SSCI enpresak Legasan libre dituen industria-lurzoruak erosteari eta kudeatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Arcelor SSCI enpresak Legasan libre dituen industria-lurzoruak erosteari eta kudeatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-16/PES-00111 galdera egin du. Informazioa bildu ondoren, Garapen Ekonomikorako kontseilariak honako hau adierazi behar du:

Nasuvinsa sozietate publikoak jotzen du ezen jarduera ekonomikorako lurzoruaren plangin-

tzaren, antolamenduaren eta garapenaren arloan egin beharreko jarduketan barruan, Bidasoako korridorearena dagoela, eta esparru horretan, aukerako bideetako bat izanen litzatekeela Legasako Arcelor SSCI-ren lurzoru industrial libreena.

Nasuvinsak harremanak hasi ditu aipatutako enpresarekin, ezarpenerako aukerak aztertze aldera. Sinetsita gaude modu batean edo bestean gauza izanen garela esparru horretan eskualde osoan dauden gabeziei aurre egiteko.

Espero dugu hemendik gutxira erantzun zehatzago eman ahal izatea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du dendetan plas-

tikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruz (9-16-/PES-00112). Hona hemen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

1.- Ezaguna da plastikozko poltsa ez-biodegradagarriek ingurumenari nolako kaltea egin dioten munduan. Hori dela eta, hainbat herrialde eta lurraldetan legeak onetsi dira dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta horien erabilera kontrolatzeari buruz. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut: Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al dauka ildo horretako jarduketarik?

Une hauetan Nafarroan ez dago araudi berekirik gai honi buruz, baina zenbait neurri proposatu

dira 2025eko Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren zirriborroan. Plan hori, gaur egun, parte-hartze publiko irekiko fasean dago, urte amaierarako planaren amaierako dokumentua osatzeari begira.

Plan integratuaren zirriborroan proposatu diren helburu eta neurrien barruan honako hauek ageri dira plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien sorreraren prebentzioa dela-eta, 8. kapituluaren barruan. Hondakinen prebentzioko programa, egungo parte-hartze fasean ekarpen berriak jasotzeko irekia:

HELBURUAK			HONDAKIN-FLUXUAK/ Hondakin mota	NEURRIEN KODEAE
KODEA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ESTRATEGIKOA		
O.P.03	OE.P.01	Plastikozko poltsen kontsumoaren ezagutza sustatzea, 2025ean murriztapen-helburuak ezartzeari begira, 2015/720 Zuzentarauarekin bat.		M.P.03.01 M.P.03.02

PREBENTZIOKO ZEHARKAKO NEURRIAK	
KODEA	DESKRIBAPENA
M.P.T. 02	Foru lege proiektu bat egitea plan hori onetsi eta urtebeteko epean, non kudeaketarako eta tresna ekonomikoei buruzko neurriak jasoko baitira, hondakinen deuseztatzeari pizgarriak kentzeko, hondakinen kudeaketaren hierarkiari lehentasuna emanez. Zergen arloko tresna ekonomikoa, material berrerabilien/birziklatuen erabilerari kengarriak aplikatzeko, lehengai berrietan aurrezteko modua emanez, azpi-produktuen, eko-etiketa edo eko-diseinua duten produktuen eta gai birziklatuen erabileraren bitartez. Produktuei berariazko zergak jartzeko aukera balioestea (esate baterako, Andaluziak plastikozko poltsen gainean ezarritakoa). Disuasio erako tresna ekonomikoa, hondakinen bereizte egokian laguntzen ez duten erabiltzaileei aplikatu ahal izanen zaiena.

ONTZIEN PREBENTZIOA INDARTU	
KODEA	DESKRIBAPENA
M.P.03.01	Poltsak ahal den guztian gutxitzea - Merkatarien eta azalera handiko saltokien elkarrekin akordioak, hondakinen prebentzioa sustatzeko (kanpainetan laguntzea, poltsa berrerabilgarriak sustatzea, eta abar).
M.P.03.02	Erosketa-poltsa berrerabilgarriak sustatzeko eta merkataritzaren txikian poltsak ahal den guztian gutxitzeko kanpainak, eta azalera handiko saltokien ekimenei babesa ematea. Aldizka ebaluatuko dira, bideragarritasun operatibo, ekonomiko eta ingurumenekoari dagokienez.

Hori guztia Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeko prebentzio neurriei buruzko IV. eranskinean egindako ebaluazioari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2013an Espainiako hondakinen prebentziarako estrategiei buruz egindako analisiari jarraituz —azken horretan, Nafarroako Foru Komunitateak parte hartu zuen—. Honako hauek dira maila nazionalean, autonomikoan eta tokikoan eraginkortasun oso handikotzat jotako neurriak, zeinetan kontsumo- eta erabilera-faserako neurriak ere ageri baitira:

Bizitza erabilgarri luzeagoko produktuak eta produktu berrerabilgarriak kontsumitzea (kargatzeko pilak, poltsa berrerabilgarriak eta abar); soltean saldutako produktuak edo ontzi berrerabilgarrietan saldutakoak, ingurumen bereizgarriekin edo etiketa ekologikoarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak 9-16/PES-00112 informazioeskaria egin du, dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Badakigu Europako 2015/720 Zuzentarauak, plastikozko poltsa arinen kontsumoa gutxitzeari buruzkoak, honako hau dioela, besteak beste:

“Europar Batasuneko kide diren estatuak hartuko dituzten neurriek honako hauetako bat jasoko dute, gutxienez:

a) Neurriak hartzea urteko kontsumoaren maila 2019ko abenduaren 31rako pertsona bakoitzeko 90 poltsatik beherakoa eta 2025eko abenduaren 31rako, beranduenez, 40 poltsatik beherakoa izateko, edo pisuaren arabera adierazitako pareko helburua lortzeko. Plastikozko poltsa oso arinak kontsumoko helburu nazionaletatik kanpo utzi ahalko dira;

b) Tresnak ezartzea bermatzeko ezen, beranduenez 2018ko abenduaren 31rako, ez direla plastikozko poltsa arinak doan emanen salgai edo produktuen saltokietan, berdin eraginkorrak diren tresnak aplikatu ezean. Plastikozko poltsa oso arinak neurri horietatik kanpo utzi ahalko dira.”

Une hauetan, Europako Parlamentuaren webgunean argitaratutakoaren arabera, europar bakoitzak urtean batez beste 200 plastikozko poltsa kontsumitzen ditu —133 poltsa Espainiako Estatuan—; horrenbestez, egiazki neurriak behar dira urteko kontsumoa beharrezko, gutxienez ere Europako zuzentarauaren eskakizunetara iritsiko bagara.

Horri dagokionez, gaur den egunean Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusitik horri buruzko inongo jarduketarik lehenetsi ez bada ere, beharrezkotzat jotzen dugu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuarekin lankidetzan jardutea, zeren eta helburu berak baitauzkagu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Starlight Fundazioak sustatutako ekimenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Starlight Fundazioak sustatutako ekimenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak 9-16/PES-00116 parlamentu-galdera egin du. Hauxe Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Starlight Fundazioaren ekimena —gau-zeruen babeseta kontserbazioa sustatzen du, kulturarako, ingurumenerako, zientziarako eta turismorako baliabide garrantzitsuak direlakoan— lerrotuta dago Nafarroa jomuga gero eta jasangarriago baten gisara kokatzearekin, hain zuzen ere naturaren ikuspuntutik jasangarria izan eta babestuta dagoen jomuga baten gisara. Hartara, bada, aurrekontuak horretarako bidea ematen duen neurrian, Nafarroako Gobernuak fundazio horrekin lan egingen du zero-kalitate bikaina izan eta babesaren eta kontserbazioaren adibide diren gune naturalen egiaztapena lortzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero

ro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00114), jakin nahi baitu “Osasuneko kontseilariak zer aurrekontu aurreikusi duen “autoituntze-jardunaldiak” deritzenak egiteko”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du aurrekontu bereziturik autoituntze-jardunaldiak egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak zein kontusailen kargura egingen diren jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak zein kontusailen kargura egingen diren jakitekoa buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00115), jakin nahi baitu “Aurrekontuko zein

kontu-sailen kargura egingen diren “autoituntze-jardunaldiak” deritzenak”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Une honetara arte aparteko izaerarekin egin diren autoituntze-jardunaldiak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren mendeko hiru ospitaleetako bakoitzaren 1710 kode ekonomikoko kontu-sailari egotzi zaizkio, eta horrela egingen jarraituko da, baita 2016ko aurrekontu-ekitaldian ere, beharrezkoa bada.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Nafarroako Ospitalegunean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitalegunean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin

du (9-16-PES-00116), jakin nahi baitu “Osasun Departamentuak zenbat autoituntze-jardunaldi aurreikusi dituen Nafarroako Ospitalegunean eta zein espezialitatetan”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa: Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Osasun Departamentuak ez du aurreikusita autoituntze-jardunaldiak egitea Nafarroako Ospitaleguneko inongo espezialitatetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Reina Sofía Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Reina Sofía Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00117), jakin nahi baitu "Osasun Departamentuak zenbat autoituntze-jardunaldi aurreikusi dituen Reina Sofía Ospitalean eta zer espezialitatean?" Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasun Departamentuak aurreikusita dauka autoituntzera jotzea soilik aparteko izaeraz itxaroteko.

te-zerrendak gutxitzeko bide gisa, gainerako formulak (profesionalak kontratatzea, deribazioa eta abar) ezinezko direnean, eta alde aurretik jardueraren egiturazko nahikotasuna bermatu denean epe ertain eta luzeko emaitzak finkatzeko eta dau den baliabideak ahal den guztian baliatu direnean.

Reina Sofía Ospitaleko espezialisten gabeziari konponbidea emate aldera eta kontratazioak egiteko ezintasuna dela-eta, autoituntze-jardunaldiak ezarri dira Errakis, Errehabilitazio, Erradiologia, Anestesia eta Digestio Aparatuko espezialitateetan, azken kasu horretan kolon eta ondesteko minbiziaren antzemate goiztiarreko programako bahe-tze-testetik heldutako kolonoskopiak egiteko.

Autoituntze-jardunaldien kopurua balioesteko dago, haiek egitera jotzen baldin bada.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, García Orcoyen Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, García Orcoyen Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00118), jakin nahi baitu "Osasun Departamentuak zenbat autoituntze-jardunaldi aurreikusi dituen García Orcoyen Ospitalean eta zer espezialitatean?" Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

2016an zehar, koloneko minbiziaren antzemateko goiztiarreko programaren harira, aurreikusita dago autoituntzera jotzea kolonoskopia diagnostikoak egiteko. Hilean lau arratsalde eginen dira, uztailen eta abuztuan izan ezik.

Ospitaleko gainerako zerbitzuei dagokienez, oraingo ez da aurreikusi inongo autoituntzerik egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2015ean publizitatera bideratutako diru-kopuruei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak 2015ean publizitatera bideratutako diru-kopuruei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatzizko galdera egin du 2015ean publizitatera bideratutako diru-kopuruei buruz (9-16/PES-00119). Hauxe da horri buruz Herritarreko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Komunikazio Zerbitzuak modu zentralizatuan kudeatzen ditu Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen kontratuak.

Nafarroako Gobernuaren publizitatea hiru motatan sailkatzen da:

- Oharren publizitatea: prentsa erregionalean jartzen diren iragarkiak dira, gehienak desjabetze-prozedurei buruzkoak. Espedientea izapidetzen ari den unitateak esanda argitaratzen dira eta haien argitaratzea Estatuko legeek arautzen dute. Batzuetan, publizitate horren ordainketa desjabetzea eragin duen obra edo zerbitzua sustatu duen entitate edo merkataritza-sozietateari egozten zaio.

- Publizitate instituzionala: Nafarroako Gobernuak bere eskumeneko gaiei buruz abian jartzen dituen informazio- eta kontzientziazio-kanpainak dira (errentari buruzko kanpaina, txikizkako merkataritza sustatzekoa...). Komunikazio Zerbitzuak publizitaterako daukan kontu-sailarekin finantzatzen da, bai eta kanpaina horiek sustatzen dituzten unitateek eskura jartzen dituzten kontu-sailekin ere.

- Nafarroako turismo-markaren publizitatea: Nafarroako Foru Komunitatearen turismo-estrategiaren barruan egiten diren publizitate-ekintzak dira, zeinek, oro har, beraiekin baitakarte Nafarroatik kanpo inbertsioak egitea, hain zuzen turismo-zerbitzuen balizko bezeroak dauden tokietan. Erabat finantzatzen du Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak.

2015ean, Komunikazio Zerbitzuak 1.325.579,47 euro egiten duen aurrekontu-gastua kudeatu zuen; horietatik, 94.186,71 euro oharren bidezko publizitate gisa sailkatu ziren; 629.404,34 euro publizitate instituzional gisa; eta 601.988,42 euro, azkenik, turismo-markaren publizitate gisa.

Oharren publizitatearen xehakitzea

Oharren publizitate-iragarkiek ez zuten edukien sormenerako gasturik izan. 2015ean publizitate mota hori kudeatzeko esleitu zen esparru-akordioan jasota dago hautatutako agentziek beren gain hartzen dituztela Nafarroan argitaratzen diren bi egunkariei igortzen zaizkien jatorrizko testuak diseinatzeke eta gauzatzeko gastuak. Izan ere, bi egunkari horiek dira iragarkiak jartzeko erabiltzen direnak, Toki Administrazioiko kontseilariaren eta Gobernuako eledunaren 1/2003 Foru Aginduari jarraituz, non publizitate instituzionalaren kudeaketarako jarraibideak ematen baitira.

Inbertsioa, aipatu bezala, 94.186,71 eurokoa izan da, eta honako hau da haren xehakatzea: 63.576,07 euro Diario de Navarra egunkarian eta 30.610,64 euro Diario de Noticias egunkarian.

Publizitate instituzionalaren xehakatzea (kanpainak)

Publizitate instituzionalaren gastua 629.404,34 eurokoa izan zen. Kopuru horretatik, 51.884,51 euro egindako kanpainen esleipendun egokitutako publizitate agentzien diseinu-, gauzate-, sormen- eta kudeaketa- gastuetarako izan ziren; eta 577.519,83 euro, berriz, hedabideetan eta bestelako publizitate-euskarrietan publizitate espazioak erosteko bideratu ziren.

Publizitate espazioak erosteko inbertsio handiena 202.777,44 eurokoa izan zen, eta egunkarietan egindakoa da. 131.049,61 euro inbertitu ziren Diario de Navarra-n; 71.727,83 euro Diario de Noticias-en; 9.734,45 euro Diario Vasco-n (Gipuzkoa); 8.793,68 euro Gara-n; 6.586,64 euro Berria-n; 4.840 euro El Mundo-n; 2.793,83 euro El Correo-n; eta 1.758,37 euro Diario La Rioja-n.

Egunkarietako inbertsioaren ondoren, irratiak dira Nafarroako Gobernuaren kontratazio gehien hartu zituen bigarren bidea, 150.133,13 euro bideratu baitziren hedabide mota horretara. Honako hau da xehakatzea: Cadena SER, 47.088 euro; Onda Cero Navarra, 36.187,18 euro; Cope, 25.232,95 euro; Euskalerrria Irratia, 1.500 euro, eta Xorroxin Irratia, 1.210 euro. Foru erkidegoan presentzia duten hiru kateekin babesletza-kontratuak egin ziren, Nafarroaren kanpoko proiektuari begira, Espainia osoan emititzen diren programen bitartez. Cadena SER, 25.000 euro; Onda Cero, 7.260 euro, eta Cope, 6.655 euro.

Publizitate-inbertsio handiena egin den hirugarren hedabide mota Internet izan da, online hedabideetan 95.558,04 euro inbertitu baitziren. Gasturik handiena Diario de Navarraren (40.654,90 euro) eta Diario de Noticiasen (23.050,29 euro) bertsio digitaletara bideratu da, bai eta Google bilatzailean eta Facebook sare sozialean publizitate-kanpainak jartzera ere (24.000,86 euro). Halaber, 7.004,99 euro inbertitu ziren www.efe.com hedabidean eta 847 euro www.ahorazonamedia.com hedabidean

Hedabideen barruan, telebista izan zen, 39.752,94 euroekin, publizitate-inbertsioaren bolumenean laugarren euskarria; honako hau da xehakatzea: Navarra TV, 35.473,57 euro; Nafar Telebista, 2.420 euro; Xaloe Telebista, 1.500 euro; eta Zona Media TV 359,37 euro.

Publizitate instituzionala zabaltzeko bestelako euskarriak ere kontratatu ziren, neurri txikiagoan:

tokiko aldizkaria, 21.956 euro; kanpo-euskarriak, 13.341 euro; zinema aretoa, 11.979 euro; aldizkari nazionalak, 4.598 euro; bestelako argitalpenak, 2.917,31 euro.

Turismo-markaren publizitatearen xehakatzea

Nafarroako Gobernuak 2015ean 601.988,42 euro inbertitu zituen guztira turismo-marka barne merkatuetan (Nafarroa) hurbileko merkatuetan (Euskal Autonomia Erkidegoa) eta intereseko merkatuetan (Espainia osoa eta, bereziki, Madrilgo eta Kataluniako komunitateak, bai eta Frantziako Pirinio Atlantikoak ere). Kopuru horretatik, 89.341,06 euro egindako kanpainen esleipendun egokitutako publizitate agentzien diseinu-, gauzate-, sormen- eta kudeaketa-gastuetarako izan ziren; eta 512.647,36 euro, berriz, hedabideetan eta bestelako publizitate-euskarrietan publizitate espazioak erosteko bideratu ziren.

Turismo-marka sustatzeko gasturik handiena Internetekoa eta Nafarroaz kanpoko online hedabideetako izan zen: 203.014,30 euro. Honako hau da xehakatzea: 48.400 euro, elpais.com; 38.799,86 euro, elmundo.es; 33.817,08 euro, abc.es; 24.417,80 euro, Hola.com; 13.189 euro, National Geographic; 12.341,54 euro, lavanguardia.com; 4.974,31 euro, diariavasco.com; 4.532,71 euro, elcorreo.com, eta 1.070 euro, Condé Nast Traveler.es. Halaber, 14.211,99 euro inbertitu ziren nazioarteko hedabide digitaletan; eta beste 7.260 euro Nafarroaren turismo-hedapena Twitter eta Facebook bidez egiteko.

Egunkariak eta irratiak izan ziren bigarren tokian Nafarroaren turismo-markaren hedapenerako hautatu ziren hedabideak, 109.631,84 euroko eta 109.081,06 euroko inbertsioekin, hurrenez hurren.

Honako hau da egunkarietan egindakoaren xehakatzea: La Vanguardia, 41.139,31; Diario Vasco (Gipuzkoa), 20.467,10 euro; El Correo (Bizkaia eta Araba), 20.025,44 euro; Gara, 10.000 euro; Deia, 10.000 euro; eta Berria, 5.000 euro. 3.000 euro egiten duten iragarkiak jarri ziren nazioarteko prentsan.

Irratiari dagokionez, Espainia osorako publizitate kanpaina bat kontratatu zen Cadena SER-ekin (40.557,93 euro), eta Nafarroari buruzko edukiak sustatu ziren Espainiako Radio Nacional-en. Euskal Autonomia Erkidegoaren merkatuari dagokionez, Eusko Irratiarekin (EITB) kontratatu zen, 8.269,14 euroko kontratuarekin, bai eta Onda Vasca-rekin ere (5.082 euro). Eta Nafarroako barne merkatua sustatzeko, Cadena SER-ekin, 17.888,14 euro; Cope-rekin, 15.003,92 euro eta Onda Cero Navarra-rekin, 14.999,93 euro.

Turismo-publizitatearen arloko inbertsioa sektoreko aldizkari espezializatueta osatu zen; haietara, 90.920,15 euro bideratu ziren. Kopuru horretatik, 24.575,10 euro Nafarroan argitaratutako aldizkarietan inbertitu ziren; 20.576,05 euro, Espainiako gainerakoan argitaratutakoetan; eta 45.769 euro atzerriko herrialdeetan argitaratutakoetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean 2016eko apirilaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta eleduna: Ana Ollo Hualde

Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako British ikastetxe berrietako ikasleen hezkuntza-prozesuei jarraitutasuna emate aldera Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako British ikastetxe berrietako ikasleen hezkuntza-prozesuei jarraitutasuna emate aldera Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00120 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak emandako informazioa:

Eginiko galderaren bidez jakin nahi da zein neurri ezarri dituen Hezkuntza Departamentuak British eta IIP ikastetxe zehatz batzuetako ikasleei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jarraipena emate aldera. Horri buruz honakoa esan behar dugu:

- Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoko (British) ikasleek Pedro de Atarrabia DBHlan jarraituko dute programan ikasten. British Council-ekin negoziatzen ari da, DBHI hori British ikastetxea izan dadin, eta prozesua oso aurreratuta dago.

- José María Huarte ikastetxe publikoko (British) ikasleek Basoko BHIan jarraituko dute pro-

graman ikasten. Hala ere, ikastetxe horretako ikasleei eskaini zaie Navarro Villoslada ikastetxe atxikian ikasten jarraitzeko aukera, hala nahi izanez gero. Beraz, bi aukera dituzte: Basoko BHI, British programan ikasten jarraitzeko; eta Navarro Villoslada ikastetxe atxikia, hala nahi izanez gero eta sarbide-proba egin ondoren, Atal Elebidunean ikasten jarraitzeko.

- Doña Mayor ikastetxe publikoko (IIP) ikasleek Iñaki Otxoa de Olza DBHlan ikasten jarraituko dute, Bigarren Hezkuntza Eleanitzaren programa berriaren barruan. Ez dute sarbide-probarik egin beharko, eta bi irakasgai, gutxienez, atzerriko hizkuntzaz ikasiko dituzte, atzerriko hizkuntzaren beraren irakasgaiaz gain.

- Catalina de Foix ikastetxe publikoko (IIP) ikasleek Zizur BHIan ikasten jarraituko dute, Bigarren Hezkuntza Eleanitzaren programa berriaren barruan. Ez dute sarbide-probarik egin beharko, eta bi irakasgai, gutxienez, atzerriko hizkuntzaz ikasiko dituzte, atzerriko hizkuntzaren beraren irakasgaiaz gain.

- Donejakue Bidea ikastetxe publikoko (IIP) ikasleek Zizur BHIan ikasten jarraituko dute, Bigarren Hezkuntza Eleanitzaren programa berriaren barruan. Ez dute sarbide-probarik egin beharko, eta bi irakasgai, gutxienez, atzerriko hizkuntzaz ikasiko dituzte, atzerriko hizkuntzaren beraren irakasgaiaz gain.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00121 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita duen Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuari begira egindako aurreikuspenak jasotzen zuen Iruñeko Donibane-Ermitagaña aldean guztira 5 unitate egotea hiru urteko ikasleentzat (125 eskola-postu): 2 unitate San Juan de la Cadena eta Ermitagaña ikastetxeetan, hurrenez hurren, eta unitate bat José M^a de Huarthe ikastetxean.

Aurreinskripzioa eginda, ikusi zen haur hezkuntzako lehen ikasmailarako (3 urte), Ermitagaña ikastetxe publikoak 26 eskari zeuzkala; José M^a Huarte ikastetxe publikoak, 17 eskari, eta San Juan de la Cadena ikastetxe publikoak, 42 eskari. Beraz, guztira, 85 eskari zeuden, lau eskola-unitatetan arta daitezkeenak.

Aurreinskripzio-datuak ikusita, ohartu ginen Ermitagaña ikastetxe publikoak aurreinskripzio bakarra zeukala bigarren lerrorako, eta José M^a Huarte eta San Juan de la Cadena ikastetxe publikoek zortzina eskola-postu zituztela bete gabe.

Bestalde, beren ikastetxean lehenengo aukerari onartu gabeko ikasleak birkokatze aukera aztertu zen. Ermitagaña ikastetxe publikorako 22 eskari zeuden, bigarren aukerako ikastetxe gisa, baina 20 kasutan eskatzailea jada lehenengo aukerari onartuta zegoen; horrenbestez, bi kasu baizik ez zeuden birkokatze. Bi eskatzaileek hirugarren aukera gisa San Juan de la Cadena ikastetxe publikoa jarria zuten, eta ikastetxe horrek zortzi eskola-postu zeuzkan hutsik.

Une horretan, datuak ikusita, ulertu genuen Ermitagaña ikastetxe publikorako aurreikusita zegoen bigarren aukera ez zela eskaini behar, zeren eta eskura zeuden 25 eskola-postuetatik 3 baizik ez baitziren beteko; inguru berean, berriz, 16 eskola-postu zeuden hutsik, eta horrek ekarriko zuen 38 eskola-postu baliagarri egotea, horrek dakarren kostu handiarekin, hurrengo eskola-urtean ez ezik, talde horren haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskolatzeak dirauen 9 ikasturtean zehar ere.

Hori dela eta, ikastetxeari esan zitzaion eskariak barematu behar zituela eta kasuko zozketa egin behar zuela ikastetxeko eskatzaile bat eskola-postu hutsak zituzten inguruko ikastetxeetako batean birkokatze, betiere hautatutako ereduari eta programari (José M^a Huarte ikastetxe publikoak, British programarekin, edo San Juan de la Cadena ikastetxe publikoak, PAI programarekin).

Une honetan dauzkagun datuekin, ez dago zertan handitu inguru horretako PAI programako eskola-unitateen eskaintza handitu.

Azkenik, baldin eta irailean azkenean aipatutako ikastetxeetan ikasle gehiago matrikulatzen badira eta eskola-postuen eskariak eskuragarri dauden postuen egungo eskaintza gainditzen badu, Hezkuntza Departamentuak berriz ere bigarren unitatea eskainiko du Ermitagaña ikastetxe publikoan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00122 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita duen José M^a Huarte ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuari begira egindako aurreikuspenak jasotzen zuen Iruñeko José M^a Huarte ikastetxean 25 eskola-postuko eskola-unitate bat egotea. Aurreko ikasturtean egin zen unitate-aurreikuspen bera zen, hain zuzen ere.

Aurreinskripzioa eginda, ikusi zen haur hezkuntzako lehen ikasmailerako (3 urte) ikastetxe horrek 17 eskari jaso zituela; horrek berarekin dakar 8 eskola-postu hutsik egotea. Lehenengo aukera gisa markatutako ikastetxean onartu ez diren ikasleak birkokatze prozesuaren ondoren, ikastetxeak eskola-postu berak dauzka.

Ikastetxeko eta antzeko eskaintza duten inguruko ikastetxeetako aurreinskripzio datuak ikusita, ez dago aurreikusita British programako (ikastetxe horrek ez du Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzen) eskola-unitateen eskaintza handitzea aipatutako ikastetxean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00123 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak

aurreikusita duen Zizur Nagusiko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturteko aurreinskripzio prozesuari begira egindako aurreikuspenak 4 unitate jasotzen zituen Zizur Nagusiko Camino de Santiago eta Catalina de Foix ikastetxeetan (100 eskola-postu), ikastetxe bakoitzak bina unitate edukita. Aurreko ikasturteetako aurreikuspena bera da hori.

Aurreinskripzioa eginda, ikusi zen haur hezkuntzako lehen ikasmailerako Camino de Santiago ikastetxe publikoak 55 eskari jasoak zituela eta Catalina de Foix ikastetxe publikoak, berriz, 25

eskari; horrenbestez, lehenengoak aurreikusitakoak baino bost eskari gehiago zeuzkan eta bigarrena, berriz, 25 eskola-postu hutsik.

Ikastetxeen aurreinskripzio datuak ikusita, erabaki zen eskola-unitate bat gehiago jartzea Camino de Santiago ikastetxean, halako moduz non eskari guztia onartu ahalko den eta Catalina de Foix ikastetxe publikoan unitate bat kenduko den, bertako inongo eskatzaile birkotatu behar gabe.

Aldaketa horiekin, herriko A-PAI eta G-PAI ereduak eskola-unitateen eskaintzari eusten zaio, eta 20 eskola-postu hutsik geratzen dira matrikulako epe bereziko eskola-postuen eskariari erantzuteko eta 2016-2017 ikasturtean zehar ustekabean irits daitezkeen ikasleen eskariei erantzun ahal izateko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00124 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita duen Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuari begira egindako aurreikuspenak jasotzen zuen Berriozarko Mendialdea I ikastetxean bi unitate egonen zirela (50 eskola-postu). Aurreko ikasturtean egin zen aurreikuspen bera zen, hain zuzen ere.

Aurreinskripzioa eginda, ikusi zen haur hezkuntzako lehen ikasmairako (3 urte) ikastetxe horrek 49 eskari jaso zituela; horrenbestez, aurreikusitako unitateak nahikoak dira egungo eskariari erantzuteko.

Gero, ikastetxeak Plangintza Zerbitzura jo zuen, esanez matrikula-aldi berezian (irailaren 1ean eta 2an) beste eskari batzuk edukiko zituela, eta, horrenbestez, aurreikusitako unitateak 2tik 3ra igotzea eskatzen zuela. Eskari horri erantzun zitzaien ezen, azkenean eskari horiek egiten baldin baziren eta ikastetxeak haiek onartzeko betebeharrak baldin bazuen, eskari horiek ikastetxearen eragin-esparrukoak izateagatik, unitateen eskaintza handituko zela eta haiek artatzeko behar zen plantilla ezarriko zela.

Horrenbestez, ikastetxearen aurreinskripzio datuak ikusita, une hauetan ez dago aurreikusita Ingeles Ikasteko Programako eskola-unitateen eskaintza handitzea aipatutako ikastetxean, aurreko lerrokadan adierazitakoak gertatzen ez diren bitartean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00125 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita duen Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuari begira egindako aurreikuspenak jasotzen zuen Tuterako ikastetxeetarako guztira 15 unitate egotea hiru urteko ikasleentzat (8 sare publikoko ikastetxeetan eta 7 sare itundu-ko ikastetxeetan).

Aurreinskripzio eginda, ikusi zen Monte San Julián ikastetxe publikoak 28 eskari jasoak zituela (25 Tuterako bizilagunenak, 1 D eredukoa eta 2 Tuterako bizilagunak ez zirenenak). Tuterako beste ikastetxe batzuek, berriz, eskola-postu hutsak

zituzten hezkuntza-eredu eta -programa berean Zehazki, Huertas Mayores ikastetxe publikoak 9 eskola-postu huts zeuzkan eta Compañía de María ikastetxe itunduak, berriz, 33 eskola-postu huts (67 eskari jasoak zituen eskainitako 100 eskola-postuetarako). Bestalde, birkokatu beharreko ikasleak Anunciata ikastetxe itunduan gainetik zeuden 5 ikasle ziren.

Une horretan, ulertu zen Monte San Julián ikastetxe publikorako aurreikusita zegoen bigarren unitatea eta Compañía de María ikastetxe itundu-ko laugarren unitatea ez zirela eskaini behar, zeren eta baliagarri zeuden 7 postu baizik ez baitziren beteko (5 Anunciata ikastetxeetako eta 2 Monte San Julián ikastetxeetako), eta oraindik ere postu hutsak geratuko ziren matrikula-epe berezitarako eta ikasturtea hasita eskaria egiten duten ikasleen eskariari aurre egiteko.

Horrenbestez, une honetan dauzkagun datuekin, ez dago zertan handitu inguru horretako PAI programako eskola-unitateen eskaintza handitu.

Azkenik, baldin eta irailean aipatutako ikastetxeetan matrikula-eskari gehiago badaude, eta oso litekeena da hala izatea, eta eskola-postuen eskariak egungo eskaintza gainditzen badu, Hezkuntza Departamentuak berriz ere bigarren unitatea eskainiko du Monte San Julián ikastetxe publikoan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

9-16/PES-00126 informazio-eskariaren bitartez galdetzen da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita duen Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Plangintza Zerbitzuak 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuari begira egindako aurreikuspenak jasotzen zuen Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxean British programako 50 eskola-postuko bi eskola-unitate bat egotea (ikastetxe horrek ez zuen Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzen).

Aurreko ikasturtean egin zen unitate-aurreikuspen bera zen, hain zuzen ere.

Aurreinskripzioa eginda, ikusi zen haur hezkuntzako lehen ikasmailarako (3 urte) ikastetxe horrek 23 eskari jaso zituela; horrek berarekin dakar 2 eskola-postu hutsik egotea. Lehenengo aukera gisa markatutako ikastetxean onartu ez diren ikasleak birkokatze prozesuaren ondoren, ikastetxeak eskola-postu berak dauzka. Une horretan, datuak ikusita, ulertu genuen ez zela eskaini behar Lorenzo Goikoa ikastetxe publikorako aurreikusita zegoen bigarren unitatea.

Une honetan dauzkagun datuekin, ez dago zertan handitu inguru horretako British programako eskola-unitateen eskaintza handitu.

Azkenik, komeni da aipatzea ezen baldin eta irailean azkenean aipatutako ikastetxean ikasle gehiago matrikulatzen badira eta eskola-postuen eskariak eskuragarri dauden postuen egungo eskaintza gainditzen badu, Hezkuntza Departamentuak berriz ere British programako bigarren unitatea eskainiko duela Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

